

EUSKARA IKASTEKO DIRULAGUNTZAK ARAUTZEN DITUZTEN OINARRIAK.

1. Xedea.

Zuiako Udalak bertan erroldatutako jendeari 2021ean eman beharreko diru-laguntzak arautzea du helburu deialdi honek; diru-laguntza horiek jarraian adierazten den edozein ikasketa egiteko dira.

- Euskaltegietan edo HABEk homologatuetako zentroetan egindako ikastaroak (2020ko urriaren 1etik 2021eko irailaren 30era arte).

- Ikastaroak barnetegi homologatuetan, 2021ean.

2. Onuradunak.

Deialdi honetako diru-laguntzak ondoko baldintzak betetzen dituzten 16 urtetik gorako pertsonentzat dira: Zuiako udalerrian errol-datuta egotea ikastaroa hasi baino urtebete lehenagotik, gutxienez, eta beretan erroldatuta egotea ikastaroa amaitu arte.

3. Eskaerak eta aurkeztu beharreko agiriak.

Eskaerarekin batera agiri hauek aurkeztu behar dira:

- Ikastaroko matrikula ordaindu delako frogagiria (jatorrizkoa).

- Euskaltegiaren edo barnetegiaren ziurtagiria; bertan, interesdunak egin dituen eta gainditu dituen mailak agertuko dira, bai eta aprobetxamendua eta asistentzia ere; era berean, zentroak emandako orduak eta ikasleak jasotakoak adierazi behar dira.

4. Onuradunen betebeharrak.

Onuradunek hauexek egin beharko dituzte:

- Diru-laguntza eskatzen duen ikastaroan gutxienez orduen ehuneko 80an izan direla frogatu, ezinezkoa denean izan ezik (arrazoiak azalduta).

- Ikastaroko maila gainditu edo, bestela, ikasketa orduak ondo aprobetxatu direla frogatu.

- Helburu bererako jasotzen diren laguntza eta diru-laguntza guztien berri eman Udalari.

- Udalari helburu bererako beste diru-laguntza edo laguntza batzuk lortu izana jakinaraztea, beste edozein administrazio, erakunde edo entitate publikotatik helburu bererako beste diru-laguntza edo laguntza batzuk eskuratu diren ala ez dioen zinpeko deklarazio baten bitartez. Beste diru-laguntzaren bat eskuratu bada, lortutako zenbatekoa eta administrazio emaila adierazi eta datu horien egiazkotasuna ziurtatzen duen agiria aurkeztu beharko da.

- Zuiako Udalarekiko zerga betebeharrak egunean eduki.

5. Eskaerak aurkezteko epealdia.

Ikastaroa amaitzen denetik hilabeteko epealdia egongo da eskaerak aurkezteko, udalak emandako ereduaren arabera.

Eskabidea eta dokumentazioa udalaren sarrera-erregistroan entregatuko dira, udalak emandako ereduaren arabera, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan adierazitako edozein bide erabiliz.

6. Balorazio irizpideak.

Diru-laguntzak borondatezkoak dira; Udalak ez dauka zertan diru-laguntzarik eman.

7. Eskaerak ebazteko eskumena daukan organoa.

Alkatetzak emango du ebazpena informazio batzordeak bidezko txostena egin ondoren.

8. Aurrekontuko kreditua eta diru-laguntzaren zenbatekoa.

Deialdi honen babespean ematen diren laguntzak 2021eko ekitaldiko aurrekontuko 335480000 partidaren kredituari, 10.000 euroko zenbatekoarekin egotziko zaizkio,.

Diru-laguntzaren gehieneko zenbatekoa ikastaroko matrikularen ehuneko 85 izango da, 600 euro urtean gehienez. Barnetegien kasuan ezin dira sartu diru-laguntzan mantenu gastuak ez ostatu gastuak.

Diru-laguntzaren zenbatekoa, bakarrik edo beste diru-laguntza batzuekin batera, ezin da izan ikastaroaren kostua baino gehiago.

9. Justifikatzea eta ordaintzea.

Eskaera eta eskatutako dokumentazioa aurkeztu ondoren ordainduko da diru-laguntza.

10. Arauak ez betetzea eta ondorioz diru-laguntza itzuli behar izatea.

Onuradunak diru-laguntza jasotzeko jarri diren baldintzak betetzen ez baditu eta, era berean, aurkeztu beharreko datuak eta agiriak faltsutzen edo gordetzen baditu, kendu egingo da diru-laguntza, eta kasu horretan itzuli egin beharko du jasotako zenbatekoa.

Oinarri hauean jasotzen ez den orotarako Zuiako Udalaren laguntzak eta diru-laguntzak arautzen dituen ordenantza aplikatuko da.